

BASOAREN SEKRETUA

Bazen behin urruneko herri batean, jendea oso pozik bizi zena, baina herri hori ez zen edozein herri. Baso haundi baten erdian zegoen ezkutatuta, eta herri misteriotsu bat zen, inork ez zekielako herri hori existitzen zenik.

Bertako herritarrak oso gutxi ziren baina guztiak itxuraz berdinak ziren: ile horiak, begi urdinak, altura ertaina... Eta izateko modua ere berdintsua zuten: alaiak, langileak, laguntzaileak...

Egun eguzkitsu batean, herritarrak basora joan ziren janari bila, material bila erropak egiteko eta herrirako beste gauza batzuk egitera. Herritar denak irten ziren, eta ez zen inor gelditu herrian, eta denak joan ziren, uste zutelako inor ez zela sartuko herrira betiko moduan.

Baina halako batean basotik buelta bat ematen ari zen pertsona batek, herria ikusi zuen, eta barrura sartzea erabaki zuen ia nor bizi zen jakiteko. Herria hutsik ikusi zuenean ideia bat bururatu zitzaion, jendea eramatea herri horretara eta herriko gauzak aldatzea, eta esandako moduan egin zuen, jendeari deitzen hasi zen eta denen artean herriko gauzak aldatzen hasi ziren.

Hortik pixka batera herritarrak pozik eta kantatzen bueltatu ziren herrira eta bat-batean herria jendez beteta, materialak moderno, eta herria aldatuta ikusterakoan, harrituta gelditu ziren herritar guztiak, eta oso haserre ere bai. Momentu hartatik aurrera herritarren artean kaos itzela sortu zen, eta ez zen gelditu.

Hortik pixka batera herritarrak adostasun batera heltzea lortu zuten beraien artean, baina ez zuten oraindik dena lortu. Beste jendearekin adostasun on batera heltzea lortu behar zuten eta herritar bakoitzak lan bat hartu zuen; batzuk hasieran joan zen pertsonarengana joan ziren tratu on baten bila, beste batzuk jendearekin hitz egitera joan ziren, eta aldatutako gauzak lehen zeuden bezala uzteko asmoz.

Denbora luzez egon ziren hizketan, baina hasieran joan zen pertsona oso burugogorra zen eta ezetz esaten zuen behin eta berriz, eta herritarrak haserretzen hasi ziren eta herritar bat hainbeste haserretu zen momentu batean txilixoka hasi zen eta hitz zatakkak esaten hasi zen eta besteak gertatzen ari zena gelditzen zailatu ziren baina haserre zegoen herritarrak jarraitu egin zuen baina azkenean ohartu zen esaten ari zena ez zegoela ondo eta pixka bat hausnartu eta gero barkamena eskatu zion beste pertsonari baina ez zegoen ezer pozik.

Barkamena eskatu ondoren, beste pertsonak berdin jarraitu zuen eta herritarrak adibide bat ipintzea erabaki zuten eta esan ziotena hau izan zen: pentsatzeko bere herria misteriotsua zela eta egun baten ezezagun bat sartzen zela beraien herrira, herritik kanpo zeudenean, eta bueltatzerakoan herria jendez beteta, material modernoa ez zutena ezagutzen, eta beren herria aldatuta zegoela eta ez zekitela zer egin. Momentu hartan pixka bat negarrez hasi zen eta denbora luzea egon eta gero ahusnartzen, barkamena eskatu zien herritarrei oso burugogorra izateagatik eta beraien bizitza aldatzeagatik.

Azkenean beren adostasuna hau izan zen: herria lehen zegoen bezala utziko zutela, eta herrian zegoen jendea momentu hartan joan ahal izango zela herrira, baina beste inor ez, eta kanpoko jendeak material modernoa eta beste gauza batzuk eramango zutela herritarrentzako.

Une hartan adostutakoa egiten hasi ziren eta kanpoko jendea joaten hasi zen, baina herritarrak berriz bueltatzeko eta gauza berriak ekartzeko esan zieten, eta hortik hilabete batzuetara berriz bueltatu ziren herrira eta denak ondo pasatu zuten betirako, eta oraindik herri hori baso haundi batean dago ezkutatuta. Eta hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila herri misteriotsu horretako plazan.

EMARTI